

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Zer esan nahi du **erosketa arduratsuak**?

Erosteko orduan kalitate- eta aurrezte-irizpideak oinarri hartzen ditudala esan nahi du. Produktu bat erosten dudanean, ahalik eta **ingurumen-inpaktu negatiborik** txikiena sortzen saiatzen naiz.

Kontuan ditut, baita ere, etikarekin eta gizartearekin lotura duten beste alderdi batzuk. Adibidez, bidezko merkataritzarekin lotura duten alderdiak, eta produktuak fabrikatzeko eta merkaturatzeko lan-baldintzak.

Bestetik, **neurriko kontsumoak** esan nahi du benetako nire beharretara egokitzen dudala kontsumoa. Erosiko dudan hori benetan behar dudala ez galdetzen diot nire buruari.

Nola murriz dezaket **ingurumen-inpaktua**?

Nik erosten dudan horrek ingurumenaren gain duen eragin negatiboa murriztu nahi badut, xehetasun asko izango ditut gogoan.

Adibidez:

Bizitza luzeko objektuak hautatuko ditut, eta konpontzen errazak direnak. "Erabili eta botatzeko" objektuak baztertuko ditut.

Nahiago ditut berrerabili, trukatu edo sal daitezkeen objektuak.

Produktuak aukeratzean, tokian tokikoak lehenesten ditut, bai eta ingurumena zainduz egindako horiek ere. Egiaztatutako produktuak diren begiratzen dut.

Aipatutakoez gainera kontuan izaten dut, baita ere, erosi dudanak bilgarri gutxi izan ditzala (plastikoak, erretilutxoak, kutxak, eta abar); hau da, produktua ireki eta berehala botatzen ditudan bilgarri horiek guztiak.

Badira ingurumenarekin lotura duten garrantzi handiko beste baldintza batzuk. Maila konplexuago batean daude horiek eta, ondorioz, lehen begi-kolpean edo etiketan ikusten zailak dira. Ari naiz, adibidez, produktua fabrikatzeko eta garraiatzeko gastatu den urari edo energiari buruz. Moltzo horretan leudeke, baita ere, atmosferara isuritako gaiak, edo produktua osatzen duten substantzia edo material toxikoak eta etorkizunean kutsatzaileak izan daitezkeenak.



Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Erosketa sozial eta etikoa

Erosketa arduratsuak berekin dakar, baita ere, produkzioan aritutako gizon-emakumeak kontuan hartzea.

Ikuspegi sozialari dagokionez, nahiago dut tokiko produktuak eta ekonomia sozialean oinarritutako kooperatibek nahiz enpresek egindakoak erosi.

Horrela, elkartasuna sustatzen ari naiz, bai eta langileek kalitatezko enplegua izan dezatela ere.

Beraz, maila etikoan, herrialde eta herri ekoizleekin bidezkoa den merkataritzako produktuak erosten ditut.

Horrela, lan-baldintza duinak sustatzen ditut.



Zer ondorio du planeta-mailako merkataritzak?

Planeta osoko lehengaiekin lantzen edo fabrikatzen dira produktuak; produkturik merkeenari lehentasuna ematen zaio, ingurumenarekin eta gizartearekin lotura duten beste alderdi batzuk ahaztuta.

Produktu horiek milaka kilometro egin behar dituzte azken kontsumitzaileera heldu arte.

Brikeko laranja-zukuaren adibidea:

Energia-kopuru handia gastatzen da hura garraiatzeko, eta lurraldea hondatzen duten azpiegitura handiak erabili behar dira (aireportuak, kaiak, eta abar).

Lur-eremu handiak eta energia kutsatzailea erabiltzen direnez, kalte handia eragiten zaie ingurumenari eta gizarteari berari ere.

Ez dakigu zer lan-baldintzatan egin diren produktuak.

Kontsumo-gaiaren kostu txikiari besterik ez diogu erreparatzen, gizartearekin eta lanarekin lotura duten beste alderdi batzuk zaindu gabe (bilgarrietan agertzen ez direnak).

Laburbilduz, produktuak kontsumitzen ditugu, nondik datozen ez dakigula eta aurpegirik ez dutela. Lehiakor eta merke ikusten ditugu, ingurumenarentzat eta gizartearentzat duten kostua isiltzen duten bitartean.



Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Agortutako kontsumo-eredua...


Garatutako herrialdeetako pertsona bakoitzeko kontsumoa ezin daiteke planeta osora zabaldu. Kontsumismoa ez da jarraitu beharreko eredu bat.

Lurraren neurriko beste lau planeten baliabideak beharko genituzke kontsumismo hori asetzeko!

Munduan 7.000 milioi biztanle inguru gara; pertsona horien %20 inguruk baliabideen %80 daukagu. Horretaz gainera, garatutako herrialdeetako pobrezia gehitu behar diogu planetaren gehiengoak bizi duenari.

Horregatik guztiagatik, **kontsumo arduratsuak** ez du esan nahi gutxiago kontsumitu behar dugunik; ez beti. Pertsona pobre askok orain kontsumitzen dutena baino gehiago kontsumitu beharko lukete bizirauteko soilik.

Lurra planeta mugatua da. Hortaz, Lurreko baliabide naturalak modu bidezkoan eta denboran iraungo duen erara banatzea litzateke elkartasunezko garapena lortzeko bide bakarra; elkartasunezkoa orain eta datozen belaunaldiekiko.



Gainera...
programatutako zaharkitzea

- Entzun al duzu inoiz kontzeptu horri buruz?

- Bilatu haren esanahia interneten.

- Eguneroko zer produktutan hauteman daiteke?

- Zure ustez zer sustatzen du programatutako zaharkitzeak: kontsumo arduratsua edo kontsumismoa?

Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Modu arduratsuan pentsatzen ikasten ari naiz

Egia aitor, ezer gutxi behar dut zoriotsu izateko, hobeto bizitzeko, edo harreman sozial onak izateko.

Gehiegikeriaren kulturara ohitu gara. Behar ez ditugun gauzak erosten ditugu; kontsumismo hutsagatik, harro agertzeko edo handikeriaz.



Hala ere, zenbait alderditan beste era batera pentsatzen ikasten baldin badut zerbait egin dezaket egoera hori aldatzeko. Lehenik, nire bizitza sinplifikatu behar dut, eta nire behar materialak murriztuko ditut.

Munduko gizon-emakumeen egoerari dagokionez, munduko beste eskualde batzuetako beharrei buruz jabetu beharko nintzateke, eta haiekiko sentikor bihurtu. Sentikortze hori elkartasun bihurtu behar dut, garapen-lankidetzarako dauden bideak erabilita.

Psikologiaren ikuspegitik, kontsumitzeko nire joera kontrola dezaket, nire bihozkadetan eta gurari jakitun izaten ahalegintzen banaiz.

Beraz, **erosteko grina arintzeko eta nire baitan objektuak sortzen duen desioa murrizteko asmoz, gaiari buruzko hausnarketa egingo dut, nire baitan naiz inguruko pertsonekin.**

Aukera guztiak aztertuko ditut: erosketetara oinez joatea, txirrinduaz edota garraiobide publikoak erabilita; gertuko saltokietara joango naiz; tokiko produktuak erosi eta tokiko zerbitzuak erabiliko ditut; eta abar.



Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Kultura kontsumistak eta publizitateak berritasunak eskaintzen dizkigute etenik gabe. Kontsumitzera eta gure aukeren gainera bizitzera bultzatzen gaituzte.

Elikagaiak dagokienez, jateko gure ohiturak aldatu dituzte, eta era askotako elikagaiak jartzen dizkigute eskura uneoro –aurrez prestatutako produktuak, gehien bat–.

Haurrentzako eskaintza gehiegizkoa da: jostailuak, opilak, jantziak eta higiene-produktuak.


Kosmetikan, aldiz, errealistak ez diren emaitzak agintzen dizkigute; estetikarekin eta argaltzearekin lotura dutenak.

Garbitzeko produktuetan, aldiz, badira gure osasunarentzat eta gure ingurunearentzat kaltegarriak izan daitezkeen substantzia kimiko asko.

Bankuetako eskaintzetan ikusiko ditugu, sarri askoan, kontsumo-maileguak, geroratutako ordainketak eta kreditu-txartelak. Bilatu beste aukera batzuk; banka etikoa, esaterako.

Kontsumitzeko gure eredia birplanteatu behar dugu, ingurumenak, kulturak, ekonomiak eta gizarteak ezin jasan baitezakete.

Hondakinak sailkatzeko ohitura hartuko dut



Organikoa / beira / papera / ontziak / berriz erabil daitezkeen hondakin txikiak / eta abar.

Gure herrialdean, urteko 535 kilo hondakin inguru sortzen du etxean pertsona bakoitzak.



“B”ak gogoan izango ditut

Baztertu egingo dut behar ez dudana oro, ingurumenarentzako kaltegarria den oro, edo gizarte-desberdintasunak sortzen dituen oro.

Behertuko dut erosketa, behar ez ditudan edo bilgarri gehiegi dituzten produktuak baztertu ditut.

Berrerabiliko ditut objektuak, beste gauza batzuetarako erabiliko ditut.

Berreskuratu eta konpondu egingo ditut produktu zaharrak.

Birziklatuko ditut materialak, eta haien osagaiak bereiziko ditut (materiala organikoa, ontziak, papera, eta abar).

Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Erosketa arduratsua eta neurriko kontsumoa

Zenbait ondorio:

EZER BERRI EROSI AURRETIK...

- Beharrezkoa den aztertuko dut, baliozkoa den, eraginkorra den, eta abar. Aztertuko dut, baita ere, egiazki behar dudana edo kontsumismo konbultsiboak itsutu nauen.
- Objektuaren abantailak eta eragozpenak aztertuko ditut. Gauzak aurkezteko moduak itsutu ez nazala saiaturko naiz.
- Erosi nahi dudanari buruzko informazioa bilduko dut (gertuko iritziak, era horretako objektuaren bat duen norbaiten iritzia, eta abar).
- Kritikoki aztertuko dut objektua, eta haren prezioa alderatuko dut (alegia, aztertuko dut objektuak prezioa merezi duen, ala sona handiko marka bat ari naizen ordaintzen).
- Zerbitzu bera egingo didaten beste aukera batzuk bilatuko ditut. Beste era batera lor de zaket nik nahi dudana gai hori, bigarren eskuko dendatan edo web-orritan begiratuta, bai eta trukeak egiteko edo gaiak alokatzeko denda nahiz web-orritan ere.



HURA EROSTEA ERABAKI BADUT...

- Behar dudana erosiko dut; produktua aurkezteko erak eta iruzurrezko publizitateak itsutu gabe.
- Produktu osasungarriak aukeratuko ditut.
- Baztertu egingo ditut "erabili eta botatzeko" produktuak; eta beharrezkoak ez diren bilgarri nahiz plastikoak dituzten horiek ez ditut erosiko.
- Aleka saltzen diren edota aurrezteko ontzi handietan datozen produktuak aukeratuko ditut. Horretaz gainera, ontzia itzul daitekeen edo birzikla daitekeen izango dut kontuan; eta plastikozko poltsarik ez erabiltzen saiaturko naiz (Nire saskia, orgatxoa edo poltsa berrerabilgarria eramango dut).
- Tokiko produktuak erosiko ditut edo, bestela ere, jatorri-deitura ezaguna dutenak. Horrela, garraiatze-gastuak murriztuko ditut.
- Markaren gainetik, kalitatea balioetsiko dut.
- Denbora luzez iraungo duen aztertuko dut.
- Etiketa irakurriko dut, eta osagaiak nahiz ezaugarriak aztertuko ditut. Ingurumen- eta gizarte-egiaztagiriak dituen ikusiko dut.
- Nekazaritza ekologikoko elikagaiak aukeratuko ditut.
- Kanpoan egindako produkturen bat erosi behar dudanean, bidezko merkataritzaren alde egiten saiaturko naiz.
- Ahal dela, oinez, txirrinduz edo garraio bide publikoak erabilia joango naiz leku batetik bestera. Autoa ez erabiltzen saiaturko naiz.



Gehiago jakin nahi baduzu:

Erosteko eta birziklatzeko ohitura onak

Erosketa iraunkorrerako gida

BIGE Bizkaiako Gurasoen Elkarte

Koopera

Konsumoresponsable

Biotrueke

Enkarterrimarket

ENEK

Ekonomia Solidarioa

Zure aztarna ekologikoa neurtu

Vida Sostenible

Intercambia.net

Consumer aldizkaria

Osasunaren Munduko Erakundea

Amigos de la Tierra

Greenpeace

Vida Sana elkarte

Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea

Consumoresponsable.org

Ecoturismo.org